



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

36. buletina (2006ko urriaren 31n argitaratua)

- **Laburpena:**
 - 1. **Eragile-programatzaile lanpostu bat aldi baterako betetzea**
- **Zehaztapenak:**
 - Teknologia Kudeaketa eta Herritarrentzako Arreta Sailean ERAGILE-PROGRAMATZAILE lanpostu bat aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.
 - **Bete beharreko baldintzak:**
 - LH II informatikan edo baliokidea
 - B gidabaimena.
 - **Balioetsiko direnak:**
 - Telekomunikazio eta informatika sistemen goi-mailako zikloa eta baliokideak
 - Prestakuntza osagarria eta eskarmentua honakoetan: telefonogune, routers, kableatu, telefono seinaleak jartzeko protokolo, datu-protokolo eta telefono deien banaguneetan.
 - Ofimatika eta UNIX arloen inguruko ezagutzak
 - 2. hizkuntza eskakizuna.
 - **Kontratu mota:** Bitarteko funtzionario kontratua lanpostuaren jabea ordezteko eta lanpoltsa. Iraupena: mugagabea. Goizeko ordutegia: 07:30etik 15:00etara. Gidatu behar da. Hileko soldata gordina: 1.878,78 euro.
 - **Lanpostuko zereginak:**
 - Tarifa jartzeko aparatuaren erabilera
 - NANaren erabilera bere osotasunean (Ibercom-en kudeaketa)
 - Telefonoguneetako hardwareen inguruko ezagutzak
 - Udalaren ahots-sarearen topologiaren mantentze lanak
 - Telefono finko zein sakelako fakturazioa kudeatzea
 - Konexioetarako konponbideen azterketa
 - Mota guztietako telefonoguneen erabilera
 - Komunikazio taldeko bestelako kideei laguntzea
 - **Izangaien onarpena** LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta 162006014207 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatez eskatu, **2006ko azaroaren 9a** arte (hori barne).
 - Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- **Hautaketa prozesuak** bi zati izango ditu.

Lehenengoan bete beharreko baldintzak betetzen dituztenen artetik aurre-hautaketa egingo da, "balioetsiko direnak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, eta 10 hoberenak aukeratuko dira.

Bigarrenean, berriz, baldintzen eta lanpostuko zereginen inguruko proba(k) teoriko-praktikoa(k) egin beharko dute (dituzte) aurre-hautaketan aukeratutakoek. Proba horiek azaroaren 20ko astean egitea aurreikusita dago

- Proba teoriko-praktikoa egiteko **onartu eta bazter utzitako** pertsonen zerrendari buruzko informazioa **2006ko azaroaren 13tik** aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 Gasteiztik kanpotik deituz gero); orobat argitaratuko da zerrenda udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza) nahiz udalaren web orrian. <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**